

Elkar jan

LAGUN PREMIA izaten da baratzezaina. Agronomo jarrera hagintaria maiz ikusten da: ni ingeniaria naiz, eta lurra nik nahi dudana, nahi dudanean eta nahi dudana bezala emango du. Lagunak behar ditugula onartzea baino errazagoa da. Agronomiaren harrotasunetik, zaputza zaputza-zen gainean besterik ez dator. Halako porru haziak egin ditugu azken hamarkadetan. Baratzezainak behar dira. Landareari berari, landareei, landare komunitatei, ekosistemei eman behar zaie harrotasuna. Kultura ez al da ba nekeza? Nekazaritzatik al datorkigu kultura? Jakina.

Denen beharrean izaten da baratzezaina. Eta, baratze eder bat izateko, hori jakitea bezalakorik ez da. Apaltasunez abiatu. Lurrari lagunduko diot, landareari lagunduko diot, ingurumenari lagunduko diot. Eta denek niri lagunduko didate: barazki hobeak, fruituak ugari, haziak oparo, buru mardulak...

Denen laguntza eskuratze horri heldu behar zaio. Txori, urubi, tximeleta, liztor, apo, amona mantangorri, zata, oilanda, sugandila, erle... Eskua emateko prest daudenei eskua luzatu behar diegu. Animalia ugari ona da, elkar jaten dugu.

Bizi ahal izateko, landareak bere gisa topatzen, eskuratzen eta



D VSQUEZ-CC BY SA

Baratzezainaren mesederako izan ohi da baratzean animalia ugari izatea. Argazkian, oilanda.

moldatzen du behar duen energia. Animalioak, aldiz, energia eskuratzeko beste bizidun bat jan behar dugu. Jate horretan, gure baratzean kalteak sortzen dituzten animalien zaleak dira beste batzuk. Azken horiek erakarri behar ditugu, gozo-gozo zaindu eta geurean habia har dezaten sustatu.

Baratze aberatsak sortu, hori da helburua. Aberatsa, etxearen alde ariko diren aberetean joria den baratzea. Baratzea egitean kaskezurrean sartu hori. Azken metro-raino ez lurra irauli eta barazkiak aldatu. Utzi tarte emankortasunari: landatu ertzetan zuhaixkak.

Ikasi eguzkiaren ibilbidea, eta jarri itzal kaltegarriarik ez izateko moduan. Iparraldea onena. Zuhaixken azpian eta baratzeke beste ertzetan, jarri loreak eta zuhaixkatxo bizikorrak. Denen artean gure lagunentzat giro aproposa sortuko da, eta merke-merke apopilo etorriko zaizkigu. Zenbaitetan, kaltegarrientzat babes bere izango dira landare horiek, baina alde handi bat izango da: sekula ez dira izurrite bihurtuko. Oreakatik bertarago izango da baratzea. Animalia asko, elkar jan. ■



Landare Berezien 12. Azoka Iturrarango Lorategi Botanikoa

AIA (GIPUZKOA) APIRILAREN 26a eta 27a

Ordutegia: goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara

Sarrera: 4 € (12 urtetik beherakoek doan)

DOAKO AUTOBUS zerbitzua egongo da Zarauzko Euskoten geltokitik eta Lorategi Botanikoaren inguruan moldatutako aparkalekuetatik

www.iturraran.org www.aiapagoeta.com www.parketxesarea.org
TEL: 943 835 389 iturraran@gipuzkoamendizmendi.net



Gipuzkoako
Foru Aldundia

